



Gsef

BILBAO2018

GLOBAL SOCIAL
ECONOMY FORUM



Bilbao



GAI NAGUSIA

Hauxe da foroaren gai nagusia: **Gizarte-ekonomia eta hiriak: tokiko garapen inklusiborako eta iraunkorrerako balioak eta lehiakortasuna.**

Gai nagusi horrek «gizarte-ekonomia» eta «hiriak» terminoak biltzen ditu, horixe baita GSEFren nortasun-ikurra, gizarte-ekonomia solidarioaren garapenarekin konprometitutako tokiko gobernuen eta gizarte zibileko eragileen elkarte den heinean. Gai hori hiru ideia nagusiren inguruan egituratzen da, hirurak ere gaur egun Europan eta munduan ematen ari den eztabaida bati zuzenean lotutakoak: gizarte-ekonomia —beraren adierazpide guztietan — aurrerapen eta garapen sozialerako eta ekonomikorako aukera erreal eta bideragarria dela.

Gaur egun, gizarteko taldeen arteko aldea handitzen ari delako kezka gero eta handiagoa da, baita aurreratutzat jotzen diren herrialde eta gizarteetan ere. Hain zuzen ere, kezka horrek zerikusi handia du Europar Batasunak eta nazioko nahiz tokiko gobernu askok adierazi duten interesarekin, gizarte-ekonomiak aberastasun kolektiboa sortzeko bete dezakeen eginkizunaren harira. Izan ere, hazkunde-eredu horretan ez da jarduera eta aberastasuna ondoren banatzeko sortzen; aitzitik, jardueraren jatorrian bertan banatzen da aberastasuna. Gainera, soberakinen zati handi bat garapen iraunkorraren helburuetara bideratzen da, eta soberakinak banatzean ager litezkeen disfuntzioak eta politika murriztaileak minimizatu egiten dira.

Krisialdi ekonomiko gogorak iraun duen artean eta enplegu-kantitate handia galtzen zen bitartean, gizarte-ekonomiak erakutsi du galera horri aurre egiteko askoz gaitasun handiagoa duela (guztiz ihes egitea lortu ez duen arren), batez ere politika sozioenpresarial gardenagoetan, iraunkorragoetan eta arduratsuagoetan oinarrituta.

Europako ikuspegitik abiatuta (Bilbon bertan dago eta), Foroaren helburua da mundu osora zabaltzea eta eztabaidatzea ea gizarte-ekonomiak ba ote duen gaitasunik hirien garapen ekonomikoa eta soziala bermatzeko benetako aukera izateko. Izan ere, premia izan duenean, eredu horrek erakutsi du indarreko eredu ekonomikoak ezarritako joko-arauetara egokitze gaitasuna duela, baina, aldi berean, jarduera-arlo iraunkorrak, inklusiboak eta bideragarriak biltzen dituzten toki-garapenerako ereduak proposatzeko gai dela, hiriari eta biztanleei etorkizun hobea eskaintzeko asmoz.

GAIK ETA AZPIGAIK

1. Politika publikoak elkarrekin sortzea

Grosso modo, esan daiteke «elkarrekin sortzeak» zera dakarrela: zerbitzu publikoak prestatzeko eta (bir)diseinatzeko jardunean orotariko eragileen parte hartzea bultzatzea. Hala, eragile publikoek ez ezik, eragile pribatuek (zerbitzuaren erabiltzaileek, zeharkako onuradunek...) ere hartzen dute parte, nor bere esperientziak, gaitasunak eta baliabideak (ezagutza, informazioa...) emanez eta partekatuz, guztien artean prozesuak (eztabaidatzekoak eta erabakitzeak) eta emaitza publikoak (zerbitzu publiko eraginkorragoak, efizienteagoak eta kalitate handiagokoak) hobetzeko, eta, aldi berean, gizarte-balio handiagoa (gizarteratzea eta gizarte-kohesioa) sortzeko.

Kontuan hartu behar dugu lankidetzeta-prozesuetan herritar bakoitzak ematen eta partekatzen dituen balio eta baliabideek ez dutela soilik emaitza desberdina sortzen; horretaz gain, abiapuntu inguruetik desberdina den beste ingurune bat ere sortzen dute (espazio publiko eta botere-harreman desberdinak). Hartara, elkarrekin sortzea gizartea eraldatzeko eta balio demokratikoak ikasteko eredu ere bada, komunitateko eta taldeko kide izatearen sentimendua, inplikazioa eta konpromiso morala sendotzen laguntzen baitu.

1.1. Tokiko gobernuen eta gizarte-ekonomiako eragileen arteko lankidetzarako estrategiak.

Gero eta tokiko gobernu gehiagok betetzen dute funtsezko eginkizuna garapen iraunkorrean eta berrikuntza politikoan. Izan ere, eragile publikoen, pribatuen eta komunitarioen arteko harremanak aldatzen ari dira. Finantzaizailea/onuraduna ohiko harremanaz harago, proiektuen etapa guztietan jorratzen dira eragile publikoen eta lurraldeko gainerako eragileen arteko lankidetzak. Asmoa:

- Lurraldearen beharrianak identifikatzea
- Irtenbide partekatuak eraikitzea
- Eremita horretako biztanleak benetan partaide bihurtzea
- Oinarri partekatu baten gainean kudeatzea proiektuak
- Partaidetzako ebaluazioa egitea

Lankidetzeta horiek burutzeko hainbat era egon daitezke: partaidetzako gobernantza, politika publikoak elkarrekin eraikitzea, elkarte publiko-pribatu-komunitarioak, kudeaketa partekatua... Prozesu horiek onura handiagoak ahalbidetzen dituzte, hala nola auzokideak gaitzea eta ahalduak. Aldi berean, gainera, proiektua areago bereganatzeko eta iraunkortasun handiagoa eskaintzeko aukera ematen dute.

1.2. Erosketa publikoa eta klausula sozialak.

Kontratazio publikoak funtsezko eginkizuna du ekonomian. Europar Batasunean, herri-erakundeek bilioi bat euro baino gehiago erabiltzen dituzte ondasunak eta zerbitzuak erosteko; BPGdaren % 12 eta % 15 bitartean (hainbat azterketaren arabera), urtean biztanleko 2.000 euro inguru (Lesmes, 2006).

Errealitate hori aintzat hartuta, pentsa liteke herri-erakundeek merkatuan eragiteko duten ahalmena erabil lezaketela, eta kontratazio administratiboa euren politika publikoak bultzatzeko zeharkako tresnatzat baliatu. Halere, gaur egun, oraindik ere, kontratazio publikoa batez ere irizpide tekniko eta ekonomikoetan oinarritzen da, behin lehia librearen eta publizitatearen printzipioak ezarrita. Aitzitik, ez dituzte nahikoa kontuan hartzen beste printzipio garrantzitsuagoak, etikari, gizarteari eta elkartasunari lotuta daudenak.

1.3. Gizarte-ekonomia politika publikoetan.

Gizarte-ekonomia politika publikoetan txertatuz, sektore horrek gizarte-intereseko helburuak lortzeko egiten duen ekarpena aintzatetsi da. Izan ere, gobernuek (tokikoek, eskualde eta estatu mailakoek nahiz estatuz gaindikoek) kontuan hartu dute gizarte-ekonomiak onura kolektiboak sortzeko duen gaitasuna. Hain zuzen ere, horixe izan da gizarte-ekonomiako enpresa eta erakundeak geroz eta politika gehiagotan (orotariko politiketan) txertatu izana legitimatzeko argudio nagusia eta, areago, berriaz gizarte-sektore hori sustatzera bideratutako politika publikoak abian jartzeko argudio nagusia ere bai.

1.4. Gizarte-ekonomia politika komunitarioan.

Azken hiru hamarkadetan, Europar Batasuneko instantziek gizarte-ekonomiari egin dioten arretak gora egin du, nahiz eta, instituzioaren arabera, tartean etenak eta garapen-maila desberdinak egon. Pixkanaka-pixkanaka, ordea, onartuz joan da gizarte-ekonomiak Europako gizartearen eta ekonomiaren garapenean jokatzeko duen eginkizun garrantzitsua, eta Europako gizarte-ereduan eraikitzeko funtsezko elementua dela aitortzen da.

Funtsezko aurrerakuntza izan da europar erkidegoko erakundeek gizarte-ekonomia txertatzea gizarteratzeko eta laneratzeko politiketan eta tokian tokiko garapenerako eta enplegua sortzeko politiketan. Dena dela, oraindik ere nabari da begirada hertsiz jokatzeko jarraitzen dutela gizarte-ekonomiak Europako gizartean eta ekonomian eragiteko duen potentzialaren eta gaitasunaren aurrean.

1.5. Gizarte-ekonomia Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendaren helburuetan.

Nazio Batuen Erakundeak aitortu egiten du kooperatibek eta gizarte-ekonomiako enpresa eta erakundeek eginkizun garrantzitsua dutela 2030 Agenda txertatzen, sektore pribatuko kide gisa. Nazio Batuen Erakundeak zenbatetsi duenez, kooperatibek ia 1.000 milioi bazkide dituzte eta 100 milioi lanpostu sortzen dituzte munduan; hau da, enpresa multinazionalak baino % 20 enplegu gehiago sortzen dute. Mutuek, berriz, munduko 230 milioi lagunen osasun-estaldura eta gizarte-babesa bermatzen dute. Adituen iritzian, Nazio Batuek ezarritako garapen iraunkorreko helburuak (GIH) lortzen laguntzen du gizarte-ekonomiak, batez ere hazkunde inklusiboari eta iraunkorrari, enplegu beteari eta pertsona guztientzako lan duinari, industrializazio inklusiboari eta berrikuntzari lotutakoak. Horrexegatik eta beste hainbat arrazoiengatik, gizarte-ekonomiako erakundeak funtsezko eragileak izan litezke GIHak lortzeko lanean. Eta testuinguru horretan ere, sektorea proaktibotasunez bultzatzeko premia nabaritzen da. Honako hauek izan daitezke horretarako bideak:

- Gizarte-ekonomiako enpresa eta erakundeek garapen iraunkorren jokatzeko duten eginkizuna areago aintzatezea.
- Gizarte-ekonomiari buruzko ezagutza zabaltzea, eta haren sareak sendotzea.
- Gizarte-ekonomiarako arau- eta instituzio-esparru egokia ezartzen laguntzea.
- Nazioarteko ahaleginak koordinatuko direla bermatzea eta sektorea sendotuko duten aliantzak sortu eta indartzea.

1.6. Gizarte-ekonomiaren portaera testuinguru kritikoetan: krisi ekonomikoan, krisi instituzionalean.

Gizarte-ekonomiako enpresa eta erakundeek krisiaren eta horiei aurre egiteko ezarritako neurrien ondorioak jasan dituzte. Sektorean lanpostuak eta enpresak galdu dira, eta kolpe handia jasan dute enpresa-emaitzetan eta negozioaren garapenean. Halere, hori guztia horrela izanik, horrekin batera esan behar da gainerako enpresa-moten eta eragile ekonomiko kapitalista hutsen aldean, erantzuteko gaitasun itzela erakutsi duela.

Oro har, gizarte-ekonomiako enpresa eta erakundeek enpleguari eta haren kalitateari eutsi diote; alde handiz gaintu dute enpresa-sare osoan gertatu den enpresen desagertpen-indizea, eta balio erantsia eta aberastasuna sortzen lagundu dute. Enpleguen eta enpresen berreskurapen-maila paradigmaticoa da. Kasu zehatz batzuetan, hala nola Euskal Herrian, azpimarratzekoa da MONDRAGON Taldearen enpresa-sendotasuna; izan ere, krisi ekonomikoaren ondorioak gogor jasan arren, eta ondorioz taldeko erreferentziako kooperatiba batek porrot ere egin duen arren, erresilientzia-gaitasun itzela erakutsi du, eta galdutako enplegua oso denbora laburrean birkokatu du, ahalik eta pertsona gutxien utziz



BILBAO2018
GLOBAL SOCIAL
ECONOMY FORUM

alboan. Badago beste adibide garrantzitsu bat, pertsona ahulenentzako enplegua eta gizarte-estaldura bermatzeko funtsezkoa izan dena, hain zuzen krisiaren inpaktuaren aurrean oso ahula den azpisektore batean. Enpresa Sozialez (Enplegu-zentro berezietan eta Gizarteratze enpresez) ari gara.



2. Gizarte-ekonomiaren ekarpena lurraldearen eraldaketan

Lurraldea, zentzurik zabalenean hartuta, garapen inklusiboaren eta iraunkorraren ezinbesteko protagonista da. Lurraldeaz ari garenean ez dugu soilik aipatzen eremu geografikoa, espazio fisikoa; guztiz bestela, bertan biltzen diren eragileak, aukerak, potentzialtasun material eta immaterialak hartzen ditugu aintzat. Kulturen, gizartearen, historian, ekonomian eta ingurumenean ibilbide bateratua egin duen espazioa, hortik abiatuta errealitate zehatza eta garapenerako potentzial endogenoa sortu duena; hain zuzen, bereziki hazkunde ekonomikoa eta oro har garapen iraunkorra ezaugarrituko duen garapenerako potentzial endogenoa. Lurralde horretan gertatzen diren faktore eta ezaugarri sozioekonomikoak direla eta, espazio horrek nortasun berezia hartzen du, garapen inklusiboak eta iraunkorrerako prozesu jakin bat sustatzeko aukerarekin. Lurralde-esparru hori osatzen duten eragile guztien artean, gizarte-ekonomia ekonomia tradizionalaren osagarritzat agertzen da batzuetan, eta ordezeko aukeratzat beste batzuetan.

Gizarte-ekonomiaren berezko balioetako bat da bertako eragileen konpromisoa eta gizarte-ardura; horiek horrela, beren buruaren garapenaren protagonistak ez ezik, gu guztion garapenaren protagonistak ere bihurtzen dira.

Eragileok berebiziko inpaktua dute, enpleguan, gizarteratzean eta gizarte-berrikuntzan egiten duten ekarpena dela eta, kanporako eta barnerako adierazten duten konpromisoa dela eta, lan egiten duten eremuaren ezagutza dela eta.

Gizarte-ekonomiak Europar Batasunaren beste asmo batean ere lagun lezake; hau da, Europa ezagutzan oinarritutako munduko ekonomiarik lehiakorrena eta dinamikoena bihurtzea, ekonomian era iraunkorrean handitzeko gaitasunarekin, enplegu gehiago eta hobeak sortuz, gizarte-kohesioa handituz, lurralde-kohesioa indartuz eta gobernantza-paradigma berrietan aurrera eginez.

2.1. Ekintzailtza eta gizarte-berrikuntza.

Azken urteotan, berrikuntzak eta gizarte-ekintzailtzak garrantzi handia hartu dute, eta agerian utzi dute ekimen horiek ekonomian eta gizartearen garapenean duten inplikazio sozial handia. Gaur egun onartuta dago ekonomiaren garapena eta gizartearen ongizatea ziurtatzeko ezinbestekoa dela jardunbide sozialak eta komertzialak konbinatuko dituzten erakunde hibridoak finkatzea.

Munduan goraka datozen gizarte-arazoei aurre egingo dieten prozesu disruptiboak bilatzeko prozesuan, azalerratu egin dira lankidetzako, autogestioko, eta elkarrekin sortzeko ereduak, gizarteko eragileen (estatuaren, sektore pribatuaren eta gizarte zibilaren) ikuspegia eta ekarpenak biltzen dituztenak. Gizarte-ekintzailtza da gizarte-berrikuntza jorratzeko

prozesuetako bat. Izan ere, gizarte-arazoetarako irtenbideak sortzen ditu, ekintzailatzatik abiatuta eta negozioaren iraunkortasun ekonomikoa eta soziala bermatuko duten ereduetan oinarrituta. Aldi berean, baina, berrikuntzaren hartzaille diren komunitateak ahaldundu egiten ditu, ekintzailatzaren zikloan subjektu aktiboak izan daitezen.

2.2. Lurralde sozialki arduratsuak.

Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearen arabera, *«lurraldea sozialki arduratsua izango da bere garapena iraunkortasun-gaietara bideratzen duenean; hau da, bere garapenean dimentsio ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak barnebiltzen dituenean. Lurralde sozialki arduratsua dela esango dugu, baldin eta erabaki ekonomikoetan gogoeta sozialak eta ingurumenekoak txertatzen badira; balioen eredia partekatu eta erabakiak hartzeko prozesua partaidetzan oinarritzen bada; jardunbide egokiak bultzatu eta alderdi interesdunen arteko etengabeko elkarrekintza sustatzen bada, berrikuntza eta lehiakortasuna indartze aldera».*

Gaur egungo garapen ekonomiko eta teknologikoak sortutako aberastasunak hazkunderenak eragiten ditu lurralde askotan; ondorioz, gizartean nahiz lanean bazterkeria eragin eta ingurumena narriatzen da. Lurralde sozialki arduratsuak sortzekotan, lurraldearen arazo zehatzei erantzungo dieten politikak prestatu beharko dira eta inplikaturako eragile guztien lankidetzat bilatu beharko da, balio ekonomikoaz gain, balio sozialak, etikoak eta kulturalak ere aintzat hartuta.

2.3. Gizarte-berrikuntzaren ekosistemak.

Haxe da gizarte-berrikuntzaren ekosistema: gizarte- eta lehia-prozesuak, ekoizpenaren garapena eta lurraldeen berrikuntza sustatzeko ekimen ugari biltzen dituen ingurunea.

Gaur egun, gizarte-berrikuntzaren ekosistema osatzen duten eragileek gero eta interes handiagoa adierazten dute ekimenak eta beraien inpaktu soziala neurtzeko aldagaien inguruan, beraien bidez, eskalatzeko gaitasun handiena dutenak aukeratu eta errotiko aldaketa sakonak eragiteko. *Berrikuntzaren ekosistemak orotariko eragileak biltzen ditu: fundazioak, ikastetxeak, ekimen pribatuak eta gizarte zibilekoak, unibertsitateak, herri-erakundeak nahiz finantza-erakundeak. Erakunde horietako askok sareak sortuz eta sustatuz, ekintzaileen eta inbertsiogileen arteko loturak eginez eta eragileen arteko lankidetzat-mekanismoak indartuz eragiten dute berrikuntzaren ekosisteman*". (Iturria: COTEC txostena. La innovación social en España —Gizarte-berrikuntza Espainian—, 2016).

2.4. Gizarte-ekonomia eta herritarrak elkarlanean: eraldaketarako binomioa.

Gizarte-ekonomiako erakundeek herritar-nortasunaren gizarte-eraikuntzaren eta herritarren eguneroko partaidetzaren oinarritzko egitura sortzen dute. Guztion ongizatea zabaltzen laguntzen dute banakakoen, elkarleen nahiz kolektiboen partaidetzaren bidez, gizarte-ehuna trinkotu egiten dute eta pertsonen eta taldeen integrazioa bultzatzen dute.

Gizarte-ekonomiari buruzko ikerlanak bat datoz erakundeen independentzia zaindu egin behar dela eta, komunitateko bizitza osoago baterako bidean, beraien alderdi soziala eta partaidetzakoa indartu behar dela esatean, oinarritzat hartuta adostasuna eta herritarren parte-hartzea, bai eta ongizatean parte hartzen duten eragileen arteko partaidetzako eta lankidetzako demokrazia ere. Gaur egun, herritarrek erabaki publikoen esparrura iritsi nahi badute, gizarte-erakundeen bitartekotza behar dute. Erakunde horiek kapital soziala delakoa kapital politiko bihurtzeko estrategiak bereganatu eta bultzatu behar dituzte.

2.5. Gizarte-ekonomiak gatazka ondorengo prozesuetan egiten duen ekarpena.

Gatazka-ondorengo garaiak esan nahi du gatazka gainditzen hasita dagoenerako ekintzak pentsatu, diseinatu eta burutu behar ditugula. Ikuspegi horren arabera, gatazkan eta gatazka ondorenean irtenbide integral eta koordinatuak eskatzen dituzten faktore eta eragile asko biltzen dira; ondorioz, gatazka ondorengo garaia eta hainbeste desio dugun bakera lortzeko prozesu hori are konplexuagoa eta zailagoa bihurtzen da.

Gatazka-egoeren atzean normalean pobrezia eta desberdintasuna egoten direla kontuan hartuta, erakundeek eta gizarte zibilak ekimen ekonomikoak kudeatu, arazoak egoki ulertu eta irtenbideak proposatu behar dituzte, eta horretarako trebezia eta ezagutza berriak ikasi eta erabili. Gizarte-ekonomiako erakundeen, GKE-en eta hirugarren sektorearen lanak gizarte-bizitza kohesionatzen du; izan ere, gatazka baten ondoren, herritarrak elkarren artean hurbilarazi, kohesionatu eta bizitza sozialera eramango dituen erakunde-sarea behar du gizarteak.

2.6. Tokiko Garapenerako Euskal Sistema.

Tokiko garapenerako euskal eredua ikuspegi orokor batetik aztertu behar da: lurraldea, gizarte, ekonomia eta ingurunea kohesionatzeko euskal politika gisara. Enpresek produktuak eta prozesuak etengabe berritzeko premia duten bezala, lurralde-garapenean parte hartzen duten eragileek elkarren arteko harremana etengabe berritzeko premia dute. Izan ere, dagoeneko ez da nahikoa elkarrekintzarako eredu egoki bat zehaztea; eredu hori behin eta berriro pentsatzeko gaitasuna ere garatu behar da. Ideia hori nahi dugu tokiko



BILBAO2018

GLOBAL SOCIAL
ECONOMY FORUM

garapenerako euskal sisteman: tokiko ekonomiaren garapen-prozesuak elkarren artean lotzea eta lurraldeko eragileak egituratzea, lurraldearen etorkizuna zehazteko. Horretarako, tokiko gizarte-eragileen artean hitzartutako erakundeak izatea komeni da; esate baterako toki-garapenerako agentziak, lurraldeko ekonomia sustatzeko bitartekari nagusiak izan daitezten. Euskadiko toki garapenerako agentziek lurraldeko ekonomiaren garapenaren ikuspegiari erantzuten diote (ikuspegi hori batik bat baliabide endogenoen potentziala aprobetxatzean oinarritzen baita), tokian-tokian enplegu-maila eta ekonomiaren hazkunde iraunkorra areagotzeko asmoz.

2.7. MONDRAGONen kontakizuna

MONDRAGON esperientzia esanguratsuenetako eta luzeenetako bat da kooperatibismoaren eta gizarte-ekonomiaren munduan, modalitate eta sektore guztiak aintzat hartuta. MONDRAGON Espainiako industria-garapenaren paradigma bihurtu da, ezohiko formula bat erabiliz: lan elkartuko kooperatibismoa. Mondragon kooperatiba-mugimenduaren azken helburua beti izan da enpresa bidezkoagoa eta solidarioagoa sortzea, askatasunarekiko, duintasunarekiko eta pertsonaren eta gizartearen garapenarekiko errespetuan oinarrituta. Gaur egun gizarte-ekonomiaren erreferentzia da nazioartean, eta prest dago bere esperientzia Foroan parte hartzen duten hiriekin eta eragileekin partekatzeko.



3. Gizarte-ekonomiako erakundeak handitzeko erronkak

Gizarte-ekonomiako erakundeek erronka handiak dituzte handitzeko duten gaitasunaren inguruan. Azpigai horretan, hazkundera bultzatzen eta zailtzen duten faktoreen —berdin dio barrukoak edo kanpokoak diren— inguruan hitz egingo dugu. Europako Batzordeak adierazi du gizarte-ekonomiako enpresek handitzeko gaitasun handia dutela, «gizarte-berrikuntzaren eskariak gora egin duelako eta gora egin dutelako, halaber, lankidetzarako teknologia eta plataforma berriek». Halere —gehitu du Batzordeak— enpresa horiek finantzaketa lortzeko zailtasunak dituzte oraindik ere, batez ere «beraien potentzial ekonomikoa ez delako nahikoa aintzatesten eta ulertzen, eta ez dituztelako nahikoa ustiatzen teknologia berriak». (Batzordearen oharra: Biharko Europako liderrak: gorabidean eta zabaltzeko bidean dauden enpresen gaineko ekimena». 2016-11-22). Foroak gizarte-ekonomiako erakundeen hazkunderako erronkei buruzko europar ikuspegia eskualde mailako beste ikuspegi batzuekin partekatu nahi du; horrela, errealitate desberdinen arteko elkarrekintzari esker, gizarte-ekonomia handitzeko gairak behar diren erronka erkideen inguruko ikuspegi partekatua lortuko da.

3.1.- Gizarte-ekonomiako erakundeen nazioarteko ikuspegia: finantzaketa-bideak, ikusgarritasuna eta arau-esparrua

Esan daiteke gizarte-ekonomiako erakundeen nazioartekotzearen lehenengo urratsak baizik ez direla eman, halako erakundeen hazkunderaren testuinguruan. Oro har eta salbuespenak salbu, gizarte-ekonomiako enpresen tamainak beraien lehiakortasuna oztopatzen du. Gehien-gehienak mikroeteak dira (15 langile batez beste) eta kudeaketa hobeto profesionalizatzeko beharra dute. Gainera, ez dute jardueraren nazioarteko ikuspegiarik eta finantzaketa behar izaten dute halako ekimenak zabaltzeko eta garatzeko.

Beste alde batetik, eta Europako instituzioek gizarte-ekonomia sustatzeko lanean idatzitako txostenetan argi ikusten denez, oraindik kanpo-ikusgarritasuna falta da, gizarte-ekonomiako erakundeek sortutako inpaktuaz ezjakintasun handia dago, eta estatuetan erakunde horien garapen handiagoa eta hobe ahalbidetzeko arau-esparruak falta dira.

3.2.- Gizarte-ekonomiako erakundeen arteko aliantzen esperientziak.

CIRIECek 2012an Europako Batzorde Ekonomiko eta Sozialarentzat egindako «Gizarte-ekonomia Europar Batasunean» txostena erreferentziatzen hartzen badugu, gizarte-ekonomiak bera osatzen duten eragileak ordezkatuko dituzten erakunde sendoak behar ditu, beraien izaera anitza eta orotarikoa dela eta. Izan ere, gizarte-ekonomiako erakunde guztiek partekatzen duten izaera eta interes erkideak kontuan hartuta, ezinbestekoa da halako erakundeak elkarrekin egituratzeko ahaleginak egitea, bai nazioetan, bai nazioartean. Gizarte-ekonomiak proiektatzen duen irudi kolektiboa zenbat eta ikusgarriagoa eta indartsuagoa izan, orduan eta garatzeko eta eraginkortasunez jarduteko aukera gehiago izango dituzte bera osatzen duten talde eta eragileek. Azpigai horretan, gizarte-ekonomiaren



jarduerak sendotu eta ikusgarriago egiteko asmoz, erakundeen artean lotu diren aliantzen esperientziak partekatu nahi dira, hala tokian-tokian egindakoak nola arduradun politikoekin elkarlanean egindakoak.

3.3.- Funtzak eta beste tresna batzuk sortzea, gizarte-ekonomiako ekimenak sortzeko eta mantentzeko.

Montrealgo Foroan finantzaketari buruzko gaia ere sartu zen, faktore hori funtsezkoa delako gizarte-ekonomiako enpresa berriak sortzeko eta dagoeneko abian direnak handitzeko.

Hartara, Europar Batasuneko Kontseiluak, 2015eko abenduan «Gizarte-ekonomia sustatzea, Europako garapen ekonomikoaren eta sozialaren funtsezko motorra delako» izeneko kontseilua egin ondoren, bilkura horretako ondorioak biltzen zituen txosten bat kaleratu zuen. Agiri horretan, finantzaketa-tresna egokienak aztertzeke eta maila guztietan sustatzeko beharrezana aipatzen zuen, finantza-ekosistema globala ezartzeko eta gizarte-ekonomiako enpresen garapena eta hazkundera ahalbidetzeko. Era berean, gizarte-ekonomiako enpresentzako finantzaketa-aukerei buruzko informazioa helarazteko lana ere aipatu zuen.

3.4.- Gizarte-ekonomiako erakundeen gobernanta-ereduen demokratizazioa.

Gizarte-ekonomiari buruzko Liburu Zuriaren aipamenak hona ekarriz: «*Gizarte-ekonomiako erakundeek partaidetzako kudeaketa-ereduan oinarritutako egitura demokratikoa dute eta, ondorioz, gobernanta demokratikoa gizarte-ekonomiaren oinarrietako bat da. "Pertsona bat, boto bat" printzipioaren arabera, erabakiak hartzeko ez da kontuan hartzen kapitalaren jabetza. Horri esker, erakundeko kide guztien inplikazioa sustatzen da eta gizarte-ekonomiako enpresen eta erakundeen independentzia eta autonomia bermatzen da*».

Gizarte-ekonomiako erakundeen gobernanta-ereduek dakarten demokratizazio-bidean sakonduz, erakunde horietako pertsonen ahalduntzearen aldeko apustua egiten da: prestakuntza, informazioa, gardentasuna, trebeziak eta kompetentziak indartzea... Azken buruan, gizarte-ekonomiako adierazpideen gobernanta-ereduen inguruko esperientziak eta proposamenak partekatzea da asmoa.

3.5.- Erakundeen gizarte-balioaren monetizazioa. Interes-taldeetan oinarritutako ikuspegia.

«*Gizarte-ekonomiako enpresek aberastasuna sortzeko gaitasun handia dute, baina ez soilik kapital finantzarioa aintzat hartuta; izan ere, eta batez ere, kapital sozialaren arabera neurtzen da*». Horixe dio Social Economy Europek egindako Liburu Zuriak, eta horregatik nahi du Europako Batzordeak gizarte-enpresen inpaktua neurtzea, neurketa horrek inbertsioa eta finantza-bideak erraztuko dituelakoan.

Dena dela, Europako erakunde nahi horrek dakarkien aldeko bultzada aprobetxatzeaz gain, gizarte-ekonomiak bere bidea egiten jarraitu behar du eta beren balio soziala planteamendu inklusibo batetik neurtu; alegia, euren interes-taldeak kontuan hartuz. Izan

ere, gizarte-ekonomiak elkarrekintzaren bidez sortzen duen harremanetik eta inpaktutik abiatuta, lan-eremu interesgarri bat sortzen da, bera osatzen duten erakundeen balio soziala monetizatzeke eta, ildo horretan, jardueren inpaktu sozialaren neurketa kuantitatibora ere iristeko.

4. Lanaren eta enpleguaren etorkizuna: gizarte-ekonomiaren eginkizuna.

Dagoeneko joera batzuk nahiko agerikoak badira ere (adibidez, aldaketa demografikoa, kultura-aniztasuna, laneko eta etxeko bizitzaren arteko uztarketa, lan-ingurune aldakorak eta teknologien konbergentzia), beste gertaera disruptibo batzuek ustekabeko aldaketa eragin dezakete lan-merkatuan: alderantzizko migrazioak, langileen balio aldakorrek edota adimen artifizialak eta robotek, besteak beste. Zenbatespen batzuen arabera, Europako langileen % 45-% 60 ordezka lezake automatizazioak 2030. urtea baino lehen.

Beste alde batetik, baten batzuek teknologiaren arriskuez ohartarazten duten bitartean, beste aditu batzuek diote aurrerakuntza teknologikoak lan-aukera berriak ez ezik, munduan sormena berpiztea ere eragin lezakeela, pertsonak ez dutelako lan egin beharrik izango bizi izateko.

4.1. Lanaren balioa gizartean.

Finantza-krisiak gizarte osoa berregituratzea eragin du eta, horren ondorioz, lanaren balioak eta herritarren eskubideek behera egin dute. Prozesu hori irauli nahi badugu, formula berriak saiatu eta dagoeneko abian diren aukerak balioztatu beharko ditugu.

Autoenplegua bilatu behar izan dutenek mendeko autonomia izateak dakarren muturreko prekariztatetik ihes egin nahi dute. Bada, beraienezko aukera izan daiteke lan-kooperatiba. Beste pertsona batzuek enpresa propioa eratzeko hautua egin dute eta kooperatiba-ereduan aurkitzen dute beren balioekin koherentzia aritzeko modurik egokiena. Eta, horrekin batera, gizarte-ekonomiak —kooperatibak eta lan-sozietate anonimoak— enpresak berreskuratzeko edo iraunarazteko aukera egokia izaten jarraitzen du. Kooperatiba, halaber, enpresa-proiektu propioari uko egin gabe tamaina handitzeko modua ere bada.

4.2. Lan produktiboa/birproduktiboa binomioa.

Ekonomia merkaturatzen den neurrian, familien diru-sarrerak handitu egiten dira, birproduktzioa lanaren zati handi bat lan ordaindua bihurtzen da eta. Zeregin birproduktiboetako batzuk etxe-esparrutik merkatura eramaten dira, hala nola haurtzaindegiak, garbitegiak edo kalean nahiz jatetxeetan janaria saltzea. Zerbitzu horietako askotan ia bakarrik emakumeak egoten dira, baina behintzat lan ordaindua eta estatistikoki agerikoa egiten dute, arauzko sektorean aritzen direnean behinik behin. Halere, «birproduktzioa» lana izaten jarraitzen du, lan-indarra eta ugalketa mantentzen laguntzen duelako.

Etxeko eta laneko bizitzak bateragarri egitea, zaintzak, lan ordainduaren informalizazioa eta aukera-berdintasuna funtsezko gaiak dira, gizarte-ekonomiak lan produktiboaren eta birproduktiboaren binomioan jokatzeko duen eginkizuna aztertzeko.

4.3. Teknologiaren sarrera eta enpleguen desagerpena.

Oro har onartuta dago aldakuntza teknologikoak hazkundearen eta garapenaren funtsezko motorra direla. Prozesu dinamikoa da eta lanpostu batzuk galdu eta beste batzuk sortzearekin batera, daudenak aldatzera ere badakar (LNE, 2016). «Lankidetzako» ekonomia edo «plataforma birtualeko» ekonomia esaten zaie berdin arteko ondasun- eta zerbitzu-trukeei eta plataforma birtualen edo aplikazio mugikorren bidez egiten diren lanei. Beraren ezaugarria da lanaren etorkizunean duen partaidetza- eta hazkunde-dinamika (De Stefano, 2016).

Pertsona batzuentzat, plataforma-ekonomia aukera ekonomikoa da; alabaina, gero eta froga gehiago daude ezohiko enplegu-erak biltzen dituzten arautu gabeko merkatuak sortzen dituztela. Enplegu-era horiek enplegu-harremanak suntsitu eta lan independentea areagotzen dute; ondorioz, langileen segurtasun gabezia handitu, lan-baldintzak narriatu eta gizarte-babeserako eskubideak suntsitzen dituzte (LNE, 2016). Plataforma-ekonomiak dakarren enplegu-harremanaren narriaduraren aurka egiteko aukera bat da gizarte-ekonomiako enpresak sortzea, langileen ahotsa eta ordezkari indartzea dakartelako.

4.4. Hezkuntza eta gazteak, gizarte-ekonomiaren etorkizuna bermatzeko.

Gazteen etorkizuneko enplegarritasunaren eta lanaren eskaintzaren eta eskariaren artean gero eta handiagoa den etenaren gaiari heltzeko, hezkuntza inklusiboa estrategia egokia dela ebatzi da. Era berean, irtenbide horrek abiada bizian aldatzen den lan-mundurako egokigarritasunaren alorrean ere lagun dezake, kontuan hartuta egoera berri horretan pertsonak askotan aldatu beharko dutela lana eta epe laburrerako enpleguak onartu beharko dituztela. Gomendagarria izango litzateke, halaber, gazte guztiek komunikazioko eta sare profesionalak sortzeko pertsona-arteko kompetentziak eskuratzea, eta kompetentzia horiek ez ikastea soilik goi-mailako ikasketetan.

Aztertutako aukeren artean, lanbide-heziketak eta lantokian bertan egindako ikasketak lanerako trantsiziorako zubi egokiagoak lortzen lagun dezaketela jo da. Ikasketzen kalitateak garrantzi handia du, lan-merkaturako sarbidea baldintza dezakeen heinean. Horregatik, gaitze-esperientzia bermatu behar da, enplegu normala bermatu beharrean.

4.5. Gizarteratzea/laneratzea eta gizarte-ekonomia.

Laneratzeo enpresak eta ekimen sozialeko Enplegu-Zentru Bereziak sortu ziren, lehenak pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzeo tresnatzat batez ere eta bigarrengoak elbarrituen gizarteratzeo eta lanean sartzeko hobetzeo bidelagun moduan. Enpresa-logika eta laneratzeo metodologiak konbinatzen dituzten enpresa-ekimenak dira. Enpresa horiek ekonomiaren ohiko prozesuetan txertatzen dira, ondasun eta zerbitzuak sortzen dituztelako, ingurunea hobetzen dutelako, pertsonentzako zerbitzuak indartzen dituztelako eta bizi-kalitatea bermatzen dutelako, betiere errentagarritasunari eta lehiakortasunari eutsiz. Alabaina, errentagarritasun ekonomikoa baloratzeaz gain, gizarte-alderdietan duten errentagarritasuna ere nabarmendu behar da, onuradunak pertsona pasiboak eta mendekoak izan beharrean, gizarteari berarengandik jaso ez dutena ematen diotelako.

Gizarte-ekonomiako enpresek printzipio bereizgarriak dituzte, besteak beste gizakia balioztatzea eta gizarte-balioa lehenestea emaitza ekonomikoen eta finantzarioen ginetik. Hartara, enpresako aukera-berdintasunetik eta aniztasunetik abiatuta, enplegu egonkorra eta kalitatekoa eskaintzeaz gain, gizarte-ekonomiako enpresak gizartean baztertuta gelditzeo arriskua edo desgaitasuna duten pertsonen laneratzea eta gizarteratzea normalizatzeko eta ikusarazteko bidetzat ere balio daitezke.

4.6. Enpresaren eraldaketa gizarte-ekonomiaren bidez.

Krisi ekonomikook eta finantzarioak nortasun-krisia eta ondorio sozial, politiko eta kultural larriak eragin ditu gizarteko sektore zabaletan, batez ere gazteengan, emakumeengan eta gizarte-bazterkeria arriskuan dauden herritarren artean. Halere, egoera hori aukera bat ere bada, gizarte-ekonomiako enpresak oro har eta kooperatibak bereziki eraldaketaren eragile bihurtzeko. Gizarte-ekintzailatza enplegua sortzeko eta beste era bateko garapen sozioekonomikoa burutzeko bidea ere bada, gizarte-ongizatea (batez ere lan-merkatutik kanpo geratu diren pertsonena) kontuan hartuz eta bere eginez. Frogatuta dago enpresa-sektore solidarioak aukera berriak eskaintzen dizkiola gizartearen zati handi bati, guztion bizi-kalitatea hobetze aldera.

Ekintzaile kolektiboek gizarte-ekonomiako enpresak abiarazteko ohiko prozesuez gain — adibidez, lan elkartuko kooperatibak eta lan-sozietateak, jabetzaren zatirik handiena langileen esku dutenak—, gero eta garrantzi handiago hartzen ari dira krisian edo ixtear dauden enpresak eraldatzeko prozesuak. Izan ere, enpresa itxi aurretik kooperatiba edo lan-sozietate bihurtzen dira, enpleguari eta jarduera produktiboari eusteko asmoarekin.



BILBAO2018
GLOBAL SOCIAL
ECONOMY FORUM

